



KUDEAKETA ALORREKO LANPOSTUETAN ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAN HAUTATUTAKO PERTSONEN ETA ESLEITUTAKO LANPOSTUEN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPEN OSAGARRIA

Gerentziaren Ebazpena, 2024ko azaroaren 7koa, kudeaketa alorreko lanpostuetan enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin behineko esleipen osagarria argitara ematen duena.

1.- Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak 2022ko abenduaren 22an hartutako 05/12-2022 eta 06/12-2022 Erabakien bidez, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketako lanpostuen enplegua egonkortzeko salbuespenezko hautaketa prozesua zuzentzen duten oinarriak onartu zituen.

2.- Haurreskolak Partzuergoko Kudeaketa alorreko lanpostuetan enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua arautzen duten Oinarri orokorren 2.24 oinarria jarraituz, Zuzendaritza Batzordeak 2024ko apirilaren 18an 09/04-2024 Erabakiaren bidez, parte-hartzaileek prozesuan lortutako puntuazio osoaren arabera hautaketa-prozesuan izangaien behin betiko zerrendak onartu zituen, hautagaien azken kalifikazioekin, kategoria bakoitzeko zerrenda bat eginda, handienetik txikienera. Eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda argitaratu eta hautagaiek zuzenketak egiteko edota erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ireki zuen ere.

3.- Haurreskolak Partzuergoko Kudeaketa alorreko lanpostuetan enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua arautzen duten Oinarri orokorren 2.26 eta 2.27 oinarriari jarraituz, Zuzendaritza Batzordeak 2024ko uztailaren 3ko 01/07-2024 Erabakiaren bidez, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa alorreko lanpostuen behin-betiko esleipena irmoa zela onartu zuen, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta esleipendun izan ziren izangaiek prozeduran zehar modu



frogagarrian egiaztatu ez zituzten agiriak aurkezteko eta dagokion kontratua sinatzeko epea ezarri zuen.

4.- Behin betekizun eta merezimenduak aurkeztu eta kontratua sinatzeko prozedura amaituta, salbuespenezko egonkortze-prozesuan behin betiko betetzeko eskainitako hiru lanpostu hutsik geratu dira Oinarri Orokorren 2.4 Oinarrian jasotako arrazoietakoren batengatik, hau da:

- a) Hautatutako pertsonak uko egitea, kontratua sinatu aurretik.
- b) Hautagaiak eskatzen zaien dokumentazioa ez aurkeztea 2.26. oinarrian xedatutakoaren arabera, edo aurkeztutakotik ondorioztatzen bada 3. oinarrian eskatutako betekizunen bat betetzen ez dutela, edo ez dutela zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisikoa edo psikikoa.
- c) Kontratua sinatzen den unean lanpostua gorde gabeko eszedentzia eskatzen bada. Oinarri Orokorren 2.4 Oinarriari jarraituz, horrela hutsik geratu diren lanpostuak esleitzeko, epaimahaiak dagokion hautagaien alde izendapen-proposamen osagarri bat egingo du, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, aipatutako inguruabarrengatik hutsik geratu diren lanpostuak bezain beste hautagai hautatuz.

5.- Hori honela, Epaimahaiak 2024ko azaroak 4an, Haurreskolak Partzuergoko Kudeaketa alorreko lanpostuetan enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua arautzen duten oinarriak eta dagozkion txosten juridikoak aztertu ondoren, horrela hutsik geratu diren lanpostuak esleitzeko dagokien hautagaien kontratazio osagarriko proposamena egin du, hautaketa prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, 2.4 oinarriarekin bat eta, betiere, aipatutako inguruabarrengatik hutsik geratu diren lanpostuak bezainbeste hautagai hautatuz.

Horrenbestez, Gerentziak honako hau xedatzen du:



Lehenengoa.- Argitarara ematea Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa alorreko lanpostuetan enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, behin betiko zerrendako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, hautatutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin-behineko esleipen osagarria, Ebazpen honen **I Eranskinean** jasota datorrena.

Bigarrena.- Hamar egun balioduneko epea zabaltzea Ebazpen hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, hautagaiek zuzenketak egiteko edota erreklamazioak aurkezteko.

Eibar, 2024ko azaroaren 7a – Gerentea, Irune Muguruza Mendarte



I ERANSKINA

KUDEAKETA ALORREKO PLAZEN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPEN OSAGARRIA

B TALDEA, KIDEGOA EDO KATEGORIA

TALDEA, KIDEGOA EDO KATEGORIA	KODEA	DOTAZIOA	LANPOSTUAREN IZENA	ATALA	ESLEIPENDUNA
B	K005	7	Kudeaketako teknikaria	EKONOMIA	DOMINGUEZ VILA MARIA
B	K005	8	Kudeaketako teknikaria	PLANGINTZA ETA PREBENTZIOA	MARTINEZ DE EZKEREKOTXA CERROLAZA MARIA ASUNCIÓN

C TALDEA, KIDEGOA EDO KATEGORIA

TALDEA, KIDEGOA EDO KATEGORIA	KODEA	DOTAZIOA	LANPOSTUAREN IZENA	ATALA	ESLEIPENDUNA
C	K013	11	Administraria	GERENTZIA	SETIEN ECHENIQUE OHIANE